

Gazteleku

Deporte escolar

Buena energía!

Casi el 90% de nuestra energía producida en España está libre de CO₂.



EL HOCKEY HIERBA SE REIVINDICA CON EL CLUB HOCKEY STICK GETXO //P.2Y3

RANKING SUB 13 Y ENTRENAMIENTO ESCOLAR DE JUDO EN ETXEBARRI //P.4Y5



● **Hirurogeita hamar haur parte hartzen dute Leioa Eskubaloi Taldean //O.6ETA7**

● **Laura Terreros, campeona de España y toda una promesa del remo femenino, rema en Raspas //P.8**



Uno de los combates que se disputaron en Etxebarri. Foto: Jose Sampedro

ESKUBALOIA

Dibertsioa, kirola eta osasuna

LEIOAN ESKUBALOIA ETA MULTIKIROLAK PRAKTIKATZEKO DOAKO ESKOLA BAT DAGO, KIROLAZ GOZATU NAHI DUTEN HERRIKO ZEIN KANPOKO UMEENTZAT

Miriam Rodríguez-en erreportajea

ESKUBALOIA frontoi batean? Bai. Gutxienez astean behin. Leioako Sakoneta kiroldegiko frontoia eskubaloi-zelai bihurtzen da igandero, Eskubaloia Leioa ekimenean parte hartzen duten ia hirurogeita hamar haurrei lekua egiteko. Irailaren amaieran hasi zen martxan eta dagoeneko oso ezaguna da herrian. 4 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta entrena-

menduak egiteko orduan taldeka banatzen dira; nagusiak alde batekik eta txikiak bestetik.

Hala ere, zein da eskubaloi eta kirol anitzeko eskola sortzearen arrazoia? "Proiektu honen helburua haurrek kirola praktikatzeko da". Kirolarien garapenera bideratuta, kirol anitz praktikatzea. Eskubaloia taldeko kirola denez, aukera ematen die haurrei beren gorputz-adierazpena oso ondo gara-

tzeko. Deskubritu, beste batzuekin neurtu eta nork bere burua gaintzeko beharizanak bideratzen dira, eta batez ere, besteekiko harremanak sendotzeko aukerak" esan dute Eskubaloia Leioa taldekoek.

Egia esan, arduradunek ez zuten espero hain denbora gutxian horrelako arrakastarik lortzerik. "Ahoz aho zabaldu da eta jendeak izena eman du. Whatsapp taldeen

bidez eta Leioako Udalaren laguntzarekin, 70 haur izatea lortu dugu. Oraingoz doakoa da eta edonork eman dezake izena, Leioakoa izan zein ez. Lekua ez dago mugatuta", esan dute eskolakoek.

Ekimenaren arrakastaren beste arrazoi bat da ez dagoela ia eskubaloi talderik herrian. "Beharizan bat estali dugula iruditzen zaigu. Ikastetxe handietan dago eskubaloia egiteko aukera, hala nola

Askartzan edo Gazteluetan, baina guk egiten dugunaren antzekorik ez eta oso pozik gaude emaitzarekin", esan dute.

Igandero haurrek ariketa batzuk egiten dituzte monitoreen laguntzarekin; eskubaloi jokalariai edo jokalaria izandakoak dira denak. Adinaren arabera jarduera batzuk edo beste batzuk egiten dira. Horregatik, entrenamendu bakoitzaren aurretik, monitoreek eurek





**70 haur igandero
joaten dira Sakoneta
polikiroldegira
eskubaloia
praktikatzera**

**Nahis eta bere lehen
urtea izan,
aktibitateak
arrakasta handia du
Leioan**

webgunean jartzen dute zein ariketa egingo diren egun horretan. Zer da zehazki egiten dutena? “Taktika joko txikiak, logika eta erabakiak hartzeko gaitasuna praktikan jartzeko. Motrizitatea, koordinazioa, oreka, lateralitatea eta pertzepzioa ere lantzen dira. Azkenik, egiteko batzuk jartzen zaizkie, haiek konponbiderik onena bila dezaten”, esan digute.

Frontoian itzelezko zalaparta egiten da; haurrak zoratu egiten dira baloiak eta petoak hartzen dituztenean. Batetik, nagusiek jokaldiak ikasten dituzte monitorea beterrano batekin. Bestetik, 4 eta 5 urtekoek gelditu gabe egiten dute korrika zelaitik, monitoreei ia entzun ere egin gabe. Pasa den igandeko ariketa zera izan zen: korrika egin, koltxoneta batean jauzi egin eta atera jaurtitzea; baina batek baino gehiagok ez zituen arauak betetzen. Bazeuden baloia hartu eta boterik egin gabe berekin eramaten zutenak. Hala ere, monitoreek



apurka-apurka azaldu zieten zer egiten ari ziren txarto.

Behin eskolako egonaldia amaituta, Eskubaloia Leioako kideek ez dute aurreikusitako talderik sortzerik. “Lehenengo urtea da hau egiten ari garena eta ez daukagu pentsatuta

lehiatzeko talderik sortzerik. Gure hasierako ideia haurrek kirola egin eta ondo pasatzea da. 11 urte arte egon daitezke gurekin”, esan dute eskolakoek.

Dagoeneko eskubaloian jokatzeko dutenei teknika hobetzeko ikastaroa ere eskaintzen diete. “Eskola honetan teknika indibidualaren aspektuak landu daitezke, hala nola botea, pasea, leku-aldatzeak edo jaurtiketa. Gainera, elementu taktikoak ere hobetu ahal izango dira, hala nola erabakiak hartzea, pertzepzioa eta jokoa hobeto eza-gutzea”. Hala adierazi dute web orrian. ●



Monitoreek pixkanaka-pixkanaka azaldu zieten haurrei kirolaren legeak.

Argazkiak: José Sampedro